Lantegi Batuaken Jakinarazpenetarako Barne-kanalaren -Kanalan- pribatutasun-politika. (Datu pertsonalen babesa)

Politika honek azaltzen du nola erabiltzen ditugun Kanalanen, Lantegi Batuak Fundazioaren Jakinarazpenetarako Barne-kanalaren, bidez egindako jakinarazpenekin lotutako datu pertsonalak.

Jakinarazpenak idatziz zein telefonoz egiteko gaitutako bitarteko guztiei aplikatzen zaie.

Irakur ezazu politika hau. Izan ere, zure datu pertsonalen erabilerari eta zure eskubideei buruzko informazioa aurkituko duzu bertan.

Politika Kanalanen eskuragarri dago, Intralanen bitartez, baita Lantegi Batuaken webguneko Etika eta Gardentasuna atalean ere.

Jakinarazpen bat egiten duzunean, saiatu informazio egiazkoa, zehatza eta eguneratua ematen. Nahita egindako jakinarazpen faltsuek edo asmo txarrekoek aplikatu beharreko araudian aurreikusitako ondorioak izan ditzakete.

Eman soilik jakinarazi nahi dituzun gertakariekin lotutako beharrezko informazioa.

Politika hau eguneratu ahal izango da aldaketa legalen, teknikoen edo Kanalanen funtzionamenduan izan daitezkeenen ondorioz beharrezkoa denean.

Nor da zure datuen erabileraren arduraduna?

Lantegi Batuak Fundazioa da datu pertsonalen erabileraren arduraduna.

Hau da bere helbidea: Txorierri etorbidea, 12. 48180 Loiu (Bizkaia).

Datuak erabiliko dira Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren eta aplikatu beharreko gainerako araudiaren arabera. Lantegi Batuakek informazioaren segurtasuna eta konfidentzialtasuna babesteko beharrezko neurriak hartuko ditu.

Zertarako erabiltzen ditugu zure datuak?

Zure datuak erabiltzen ditugu jakinarazpena jaso eta kudeatzeko, gertakariak aztertzeko eta ikertzeko, eta, hala dagokionean, erantzuteko eta beharrezko neurriak hartzeko.

Datuak soilik eskuratu ahal izango dituzte jakinarazpenak kudeatzeko edo ikertzeko datuok ezagutu behar dituzten pertsona baimenduek, Kanalanen prozedurari jarraikiz.

Datu pertsonalak eta gainerako informazioa konfidentzialtasunez erabiliko dira. Informatzailearen nortasuna isilpean gordeko da, eta gertakarietan aipatzen diren pertsonei ez zaie jakinaraziko.

Gertakariak ikertzeko, neurri zuzentzaileak hartzeko edo dagozkion prozedurak izapidetzeko beharrezkoa denean, datuak agintaritza judizialari, Fiskaltzari edo administrazio-agintaritza eskudunari jakinarazi ahal izango zaizkio.

Ez da datuen nazioarteko transferentziarik egiten.

Zure datu pertsonalen erabilerari buruzko zalantzarik baduzu, Datuak Babesteko Ordezkariarengana jo dezakezu, dpd@lantegibatuak.eus helbidera idatziz.

Zergatik erabil ditzakegu zure datuak?

Jakinarazpena otsailaren 20ko 2/2023 Legearen esparrukoa denean, lege horretan ezarritako betebeharrak betetzeko erabili beharko dira.

Jakinarazpena 2/2023 Legearen esparrukoa ez denean, aldiz, datuen erabilera Lantegi Batuakek kontsultak kudeatzeko eta erantzuteko duen interes legitimoan oinarrituko da, baita legearekin edo Kode Etikoarekin lotutako balizko ez-betetzeak prebenitzeko, detektatzeko eta ikertzeko duen interesean ere.

Zenbat denboraz gordeko ditugu zure datuak?

Datuak jakinarazpena kudeatzeko eta, hala badagokio, ikerketa hasi behar den ala ez erabakitzeko ezinbesteko denboraz gordeko dira Barneko Informazio Sisteman, eta, gehienez ere, hiru hilabetez.

Jakinarazpena kudeatzen jarraitu edo ikerketa bat hasi behar bada, datuak gorde ahal izango dira hura izapidetzeko eta erator daitezkeen erantzukizunei erantzuteko behar beste denboraz.

Jarduketarik abiatzen ez bada, datuak ezabatu egingo dira, sistemaren funtzionamendua jasota gera dadin modu anonimoan gordeta egon ezean.

Zein eskubide dituzu?

Zure datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurkaratzeko eta haien erabilera mugatzeko eskubideak erabil ditzakezu, hala dagokionean.

Horretarako, idatzi helbide honetara: dpd@lantegibatuak.eus

Zure datu pertsonalak modu desegokian erabili direla uste baduzu, erreklamazio bat aurkez dezakezu Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan.